

Mamuak kolkoan

Iñigo Aranbarri

Egunero, 2003-04-02: 4.

"Ez zait mamu bakar bat gehiago sartzen kolkoan!".

Martin Ugalderen jarreraz harro, hala haserretu zitzaiola Joseba Arregiri kontatu zidan, orain dela hamahiru urte Jaurlearitzarekin izaniko bileretako batetik bueltan, Joxemi Zumalabek. Batzarrak eguneroko kontua ziren behintzat. EUSKALDUNON EGUNKARIA izango zena, goait zegoen. Lasarteko industrialdeko pabiloira bilduak, kazetariak jauzi handirako trebatzen ari ziren beheko solairuan; aldameneko gelan, estilo liburuari azken ukituak ematen ari zitzaizkion; inoiz, maketa frogak agertzen ziren mahai gainetan. Hitz egiten, asko ikasi zen. Baina bilerotan, berak nahi baino gehiagotan fortunatu zitzaion Ugalderi bere onetik ateratzen zuten politikoeekin egon beharra.

Alferrik da ukatzea, Arregiren administrazioak erakutsitako jarrerak urduritasuna kutsatzea lotzen zuen. Eta urduritasunez hitz egiten zen bi egunkari izatearen ezinaz. Izatez, ezina bazitekeelako. Alde batetik, *Argia* aldizkaritik zetozen kazetariak zituela muina, ilusioz eta zein ele gogaikarri egun, militantismo dezentez, beteriko ekipoa. Bestetik, EGUNKARIAren proiektua aurrera zihoala-eta, Jaurlearitzaren gaztigua: "Badakigu nortzuk zareten, guk geurea aterako dugu". Inoiz, lasterketa baten tankera hartzen zitzaion hari guztiari.

"Ez zait mamu bakar bat gehiago sartzen kolkoan!".

Bi proiektuen arteko aldeak, begien aurreko ziren. Ugaldek eta Zumalabek Arregiri mahai gainean jarri ziotenak urteetako bermea zuen, giza talde trebatua zuen atzean. Ariketa politikorik ere izan zen tartean. Dinamika askoren bilgune izatea erdietsi zuen, eta garrantzitsuena, eskua zabal zetorren. Arregirenak, aldiz boterearen mintzoa zuen. Jenderik ez, baina dirua zegoen. Publiko izenekoa, baina sortzez itxia. Nabaria zen, beste kultura politiko batetik zetorren Martin Ugalderi eramangaitza zitzaion gauzak goitik egiteko era hura.

Denboragarrenera, agerian geratu da bakoitzaren ibilia. Polita da ikustea non diren pasadizo hartako bi andoaindarrak. Martin Ugalde orduko ametsa zaintzen bizi da, halako grinaz non adinak soilik libratu duen atxiloketatik eta, neurri batean bakarrik, sinesten lanak dituen amesgaiztotik. Arregik gogoeta interesgarriak idazten segitzen du, baina ez atera behar zuen balizko egunkari hartan, ezta haren hizkuntzan ere. Gazteleraz eta 36ko irabazleek behinola gizendutako prentsan baizik.

Bere bidea eginez, EGUNKARIAk hasieran esandakoa bete du: denetariko artikulugileekin, beste inork erakutsi ez duen askotasuna erakutsi du, kazetari gaitzen eskola izan da, arrunt lagundu du hizkuntza finkatzen, eta eguneroko jardunaren bidez, orduan esandako astakeriez lotsatzera behartu du hainbat politiko. Isilean. Dimisiorik eskatu ez, baina barkamenik ere eskatzen ez den herri batean bizi baikara.

"Ez zait mamu bakar bat gehiago sartzen kolkoan!".

Baina erredakzioen giltzatze politikoak iritziei bide eman dienean, Ugaldereen kezka hasi dira han-hemenka sortzen. Jaurlaritzako zenbait arlotatik eginko adierazpenek mamu zaharrak berpiztu dituzte, eta tarteka eman duten irudia Josu Landak berriki zioen bezala, hilaren herentzia banaketara agertzearena izan da. Saiak epaileak hildako gorpuaren gainean. Lapurrak kartera, erlojua eta zapatak ebasten. Alikatez haginak ateratzen. Lauxetari betaurreko hautsiak kentzen. Halako amnesia nahi bat, hamahiru urte hauek bizi izan ez bagenitu bezala, langileen urteetako bizikizuna, irakurleen urteetako apustua orain bete litekeen txeke batean kabituko balitz bezala Euskal Herria Jaurlaritzan kabituko balitz bezala.

Eta ni, hitzek naute sutzen. Egunkari berriak zabala behar duela esaten denean, konparazio batera, ezen mihiak salatzen baitu hiztuna. Zabala esaten bada orain artekoari ez zaiola horrela iritzi esan nahi du. Zabaltasuna nori, eta Jaurlaritzaren aldean hagitzez giza esparru zabalagoa biltzea lortu duen kazeta bati. Zabaltasuna nori eta Euskadi kanpolarrosan etsi nahi ez eta Euskal Herri barnearantzan bizi nahi duen egunkariari. Erraza da: esan dadila zeren antza behar duen, eman dadila EUSKALDUNON EGUNKARI bezain zabala eta askotarikoa den egunkari bakar baten izena, ikasteko. Eta konprazioaren mina: zergatik ez da lelo, argudio, logika bera erabiltzen zuzeneko sosez zein publizitatez laguntzen diren beste kazetek ari direnean? Zabaltasun bera eskatzen zaio *El Correo Español*-i, *El Diario Vasco*-ri? Zabaltasun bera *Deia*-ri? Arrazoa, betiko da. Txikia zapalgarri da. Txikia bortxagarri da. Txikia itxigarri da. Eta zerbaiten monopolioa nahi bada, errazagoa da zemaitzen.

EUSKALDUNON EGUNKARIAK gauza asko utzi du agerian hamahiru urte honetan. Batzuk nabarmenak. Euskaldunok, munduko gainerako herriek bezala, egunkari bat behar dugula da bat. Informatzeko ez ezik eguneroko beste hainbat esparru ongi betetzeko beharrezkoa dugula. Bestea, EGUNKARIAK hizkuntza herren bat gaurkotzeko balio izan duela, ez dagoela horrelakorik Lizardiren euskara noranahitzeko... Eta administrazioen egiteek gure izaera egunero moldatzen duten garaiotan, konstatazio beharrezko bat: Euskal Herria e da Euskadin kabitzen.

"Ez zait mamu bakar bat gehiago sartzen kolkoan!".

Enura gabe, lortutako espazio honen *jaurlarizazioak* orain arte erdietsitakoa zapuztea leharke. Politikoen baldarkeriaren, alderdien jarrera mukulatuen, instituzioen ezinaren aurrean. EGUNKARIA da oraindik denok herri berekoak garelako sinetsarazten digun erreferente bakarrenetakoa. Eta langileek eskaini bezala, Jaurlaritzak izan behar du bere tokia egunkari berriari, andoaindarrak andoaindarrari proposatu zionean bezalaxe. Toki bat. Euskararen normalizazioan motor diren beste toki batzuen ondoan. Oraindik ere, itxiera osteko egunetara doakit gogoia maiz. Emozioa da hitza, berandu baino lehen norbaitek patentatu beharko lukeen eslogan eder harekin: "Bihotza bero, burua hotz, eskua zabal". Eta Martin Ugalde ikusten dut, esperientziatik, Joxemiz oroi, beste bat gehitzen. "Eta kolkoia itxia".